

PAPEREZKO SORKUNTZAK

Irakaslea

Aran Santamaria

Gutziz sortzaileentzako den tailer honetan, paperezko elementuak eraldatuko dira. Liburu aldatuak, paperezko etxeak, pertsonaia artikulatuak, collageak... Hauek guztiak aldizkariak, liburuak, mapak, planoak edo ilustrazioak moztzen, forma ematen, konbinatzen eta itsasten lortuko dira. Paperezko istorioak sortzeko beste modu bat ezagutaraziko da.

Helburuak

Paperezko sormen-lanak egitea, istorio berriak kontatzeko hainbat teknika erabiliz:

- Liburu "eraldatuak".
- Paperezko etxeak.
- Arkitektura pertsonalak: kanpoko mundua (animaliak, natura) eta barrualdea birsortzen dituzten konposizioak.
- Pertsonaia artikulatuak.
- Collageak.

Nori zuzendua

Helduentzat.

Materialak

Prezioaren barne.

Egitaraua

Urriaren 22tik, abenduaren 17ra
Ostiralero, 19:00etatik – 20:30era

Hizkuntza

Euskaraz



Aran Santamaria

Santamariak zeramika ikasketak egin zituen Debako Arte Eskolan eta, bere karreraren hasieran instalazioez eta eskulturaz interesatu bazen ere, laster hasi zen papera eta liburuak lantzen. Artisautza azoketan ohikoa da, eta hezkuntzan lan egiten du (batez ere adingabeekin) Euskal Herriko kultur etxeetan eta erakundeetan (Zumaia, Balan, Artium...), eta lankidetzak artistikoak

egin ditu, hala nola, *8 Begirada* proiektua, *Zilarrezko ispilua* edo *Sasi guztien azpitik*. Bere lanak Donostiako *Ekain* artelan galerian, Bilboko *Narata eta Magnolian* eta Iruñeko *Odjeteria de los días felices* dendetan saltzen dira, besteak beste. Zumaian, bere obra ezagutu nahi duenarentzat zabalik du tailerra.

Esteban Peicovichen esaldi batekin definitzen du bere lana Santamariak: "*Poema tximistekin egiten bada, ipuina argazkiekin eta eleberria ehuntzeko orratzekin* nik autoeraikitzen dut neure burua guraizeekin eta paperezko istorioekin".

Oharra

Ikasle guztiek beharrezko neurriak hartu beharko dituzte COVID-19 gaixotasuna hedatzeko arriskurik ez sortzeko, bai eta arrisku horiekiko esposizioa bera saihesteko ere. Agintariek eta Donostia Kulturak ezarritako segurtasun eta higiene neurriak jarraitu beharko dira.